

C2C2 Hizkuntza-eskakizuna

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA		Iraupena
Irakurmen-proba	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: gutxienez bi testu eta bi ariketa. • <u>Ezaugarriak</u> Testuak luzera desberdinekoak eta era askotarikoak izango dira. Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. Gutxienez 10 item. Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean. <p><u>Ariketa motak</u>: aukera anitzeko galderak, loturak egin (ideiak/izenburuak/paragrafoak lotu), hutsuneak bete (cloze testa, esaldiak txertatu...), testua ordenatu, berridazketak (aukera anitz erara) eta abar.</p>	40 min
Idazmen-proba	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: luzera ertaineko testu bi idatzi (250 hitz ariketako, gutxienez). Erregistro formaleko idatziak izango dira. Helburu profesional, akademiko edo sozialekoak. Eta gai aldetik aski espezifikoak eta konplexuak izango dira. • <u>Ezaugarriak</u>: idazlanak bideratu egingo dira: landu beharreko zenbait datu, ideia edota argudio eskura izango ditu azterketariak, hala aipu gisa nola ideia-, baieztapen- edo galdera-zerrenda gisa. <p>1. <u>ariketa</u>: jarraibideak, azalpenak, iritziak edo argudioak dituen administrazio arloko idazkia. 2. <u>ariketa</u>: argudio-testu bat idatzi. Hainbat gai proposatuko dira horietako zein garatu aukeratzeko.</p>	120 min

AHOZKO AZTERKETA		Iraupena
Entzumen-proba	Entzumena mintzamenarekin batera ebaluatuko da, berariazko entzumen-probarik egin gabe.	Mintzamen-probak irauten duena.
Mintzamen-proba	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egitekoa</u>: Saio bakoitzean bi azterketari arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Lehenengo ariketa egiteko, aldez aurretik gai bana prestatuko dute, bakoitzak bere aldetik. Bikoteak osatzeko azterketari nahikorik ez badago, bakarrik geratu den azterketariak aztertzaile batekin egingo du bigarren ariketa. • <u>Ezaugarriak</u>: <ul style="list-style-type: none"> <u>0. Identifikazioa</u>: (Ez da ebaluatuko). Ariketei ekin baino lehen, azterketariak izen-abizenak eta NAN zenbakia esan beharko dituzte. <u>1. ariketa</u>: (Bakarrizketa. Gaia azaldu, iritzia eman). Aldez aurretik prestatutako gaiari buruzko argudio-testua eratu, txandaka. Batek bukatu eta bigarrena hasi aurretik, epaimahaiak entzundakoaz galdetuko dio bigarren horri. Euskarria: diskurtsoa bideratzeko, azterketariak bere lan-esparruko bi testu-aipamen labur (aipamen+datu, aipamen+galdera) izango ditu eskura. Denbora: 4 min garatzeko eta minutu bat aztertzailearen galderei erantzuteko. <u>2. ariketa</u>: (Bat-bateko elkarrizketa). Gai bera bi azterketarientzat. Ikuspuntu kontrajarri edo osagarriak, bakoitzak berea defendatzeko. Hasteko, bakoitzak bere ikuspuntua azalduko du, labur. Ondoren, elkarrizketan edota eztabaidan arituko dira. Epaimahaiak parte har dezake elkarrizketa bideratzeko edo jarduna orekatzeko. Euskarria: bi fitxa. Gai/egoera bat eta, argazki/eskema bidez, hari buruzko iritzi kontrajarriak. Denbora: 1 min fitxa begiratzeko. 10 min bien artean eztabaidan jarduteko. <p>Adierazten diren denborak gutxi gorabeherakoak dira. Edonola ere, aztertzaileek erabakiko dute azterketak zenbat iraungo duen.</p>	35-40 min (15 min gaia prestatzeko dira)